



SANTO TOMAS
LIZEOA



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Produktu hau edonork erabili dezake, nahiz eta, oinarrizko teknologiaren ezagutza bat beharrezkoa den. Pertsona talde bakoitzak ezaugarri eta behar ezberdinak ditu, honen arabera, produktua mota batekoa edo bestekoa izatea bilatuko dute. Beraz, produktua hau erosi duten bezeroen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Hasteko, pertsona gazteei bideratua dago bereziki, musika entzuteko aparatuak (bozgorailuak, aurikularrak...) erosten dituzten gehienak haiek baitira. Alde batetik, independizatu berri diren horiek beraien etxeetan hau jartzeko aukera izatea nahiko genuke. Hauek diruz eskas dabilta, gehienak lanean hasi berriak baitira. Horregatik, produktu merkeak bilatuko dituzte. Bestetik, gurasoekin bizi diren gazteek ere horrelakoak jarri ahal izango dituzte haien etxeetan. Horretarako, beraien gurasoak konbentzitzen saiatuko dira. Beraz, guraso hauen ezaugarriak aztertzea garrantzitsua da. Gehienek diru nahikoa aurreztua izango dute eta ondorioz, dutxa kalitaztekoa izatea bilatuko dute. Beraz, kalitate oneko dutxa alkatxofa merkeena ekoizten saiatuko gara.

Ondorioz, masa merkatuari zuzendua dagoela esan daiteke, gazteez gain, gurasoek ere erabili ahal izango baitute, baita teknologia berriekin ondo moldatzen diren adineko pertsonak ere. Garai eta genero ezberdinetakoa izan arren, denok gogoko dugu musika eta bereziki dutxatzen ari garen bitartean entzutea gustatzen zaigu. Gure merkatutik kanpo geratuko direnak bluetoothik gabeko mugikorra duten pertsona helduak izango dira soilik. Hauek gero eta gutxiago dira; izan ere, helduak teknologia berrietara egokitzeko ahalegin ugari egiten ari dira. Beraz, adineko pertsona hauek kontuan hartuta, erabiltzeko erraza den sistema bat pentsatu dugu. Horrez gain, argibide papera erraza izatea ziurtatuko gara, hizkuntza ezberdinetan eskainiz (Gaztelera, Euskara, Ingelesa, Frantsesa, Alemana, Txinatarra, Japonera, Errusiera...).

Gure produktua Roca-n promozionatuko denez, gure erosle gehienak Espainiar estatukoak izango dira, beraz, hasiera batean gaztelera egongo da programatua. Hala ere, internet bidez saldu eta mundu guztira bidaliko dugu, beraz, hizkuntza aldatzea oso erraza izango da, piztu bezain laster hori izango da eman beharreko lehen pausua (hizkuntza aukeratzea). Horrez gain, beste herrialdeetako erosle hauek pentsatuz, bidalketa prezioa ahalik eta baxuena izaten saiatuko gara (5€ gehienez). Era berean, bidalketa azkar egiten saiatuko gara, gehienez astebete. Behin produktua jasota gustukoa ez izanez gero gainera, bueltatzeko aukera izango dute. Horrela, ez dute produktua erostea gehiegi pentsatu beharko.